

Pribatuen Iragarkiak

MINAS BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

IRAGARKIA, Teknikari Espezialistaren titulu bat (Adarra: Elektrizitatea eta Elektronika, Espezialitatea: Makina Elektrikoak) galdu egin dela argitaratu ematen duena.

3249

Xedapen Orokorrak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Zk-962

AGINDUA, 2001eko otsailaren 14koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, oinarritzko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzeko dena.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuak 2000ko otsailaren 3ko emandako Aginduan, lehendabizi ezarri ziren, oinarritzko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak, gizarteratzeko gutxienezko diru-sarrerari buruz apirilaren 20an emandako 198/1999 Dekretuaren 12.3 eta gizarte larrialdietarako laguntzei buruz apirilaren 20an emandako 199/1999 Dekretuaren 17. artikuluetan xedatutakoa garatzeko. Agindu hori 2000ko martxoaren 1ean argitaratu zen EHAA-n (42 zenbakia), eta ordudanik aplikatu izan da, baina egungo egoera ikusita, doikuntza batzuk egin behar dira, aplikatu beharreko pizgarrien zenbatekoari dagokionez batez ere.

Hain zuzen ere, Gizarte Eskubideen Agiriari buruz abenduaren 27an emandako 10/2000 Legea (249 zenbakiko EHAA-n argitaratua abenduaren 30ean) onetsi da orain dela gutxi eta 2001eko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean. Lege horrek arauak sakon aldatu ditu zenbatekoen inguruan. Aldaketak 2000ko otsailaren 3ko Aginduko edukian eragina izan du, beraz, onetsitako legeriari egokitzeko prozesuari ekin behar zaio.

Nahiz eta agindu honen idazkeraren helburua 10/2000 Legeak zenbatekoen inguruan egindako aldarazpenei egokitzea baino ez den, gaia oso korapilatsua denez, komenigarria da testu berri oso bat argitaratzea,

Anuncios Particulares

INSTITUTO DE EDUCACIÓN SECUNDARIA MINAS

ANUNCIO por el que se hace público el extravío de un Título de Técnico Especialista (Rama: Electricidad y Electrónica, Especialidad: Máquinas Eléctricas).

3249

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Nº-962

ORDEN de 14 de febrero de 2001, del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, por la que se establecen los estímulos al empleo de los titulares de la Renta Básica y de los beneficiarios de las Ayudas de Emergencia Social.

En la Orden de 3 de febrero de 2000, del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, se estableció por primera vez, en desarrollo de lo previsto en el artículo 12.3 del Decreto 198/1999, de 20 de abril, por el que se regula el Ingreso Mínimo de Inserción y en el artículo 17 del Decreto 199/1999, de 20 de abril, por el que se regulan las Ayudas de Emergencia Social, el estímulo al empleo para los titulares del Ingreso Mínimo de Inserción y para los beneficiarios de las Ayudas de Emergencia Social. Dicha Orden, que fue publicada en el BOPV n.º 42, de 1 de marzo de 2000, y que se ha venido aplicando desde entonces, requiere, a la vista de las circunstancias actuales, una serie de ajustes, específicamente en lo que se refiere a la fijación de la cuantía de los estímulos a aplicar.

En concreto, la reciente aprobación de la Ley 10/2000, de 27 de diciembre, de Carta de Derechos Sociales, publicada en el BOPV n.º 249, de 30 de diciembre, y con entrada en vigor del 1 de enero de 2001, ha introducido importantes cambios normativos en materia de cuantías que afectan al contenido de la Orden de 3 de febrero de 2000, la cual requiere por tanto de un proceso de adaptación a la nueva legislación aprobada.

Si bien la redacción de la presente Orden no busca sino ajustarse a las modificaciones introducidas en la Ley 10/2000 en materia de cuantías, la complejidad del tema aconseja la publicación íntegra de un nuevo texto a

zertarako eta erakundeek eta profesionalek hobeto ulertzeko.

Ondorioz, hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Xedea.

1.— Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 12.3. artikuluan eta gizarte larrialdietarako diru-laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuaren 17. artikuluan jasotako ondorioetarako, eta Gizarte Eskubideen Agiriari buruz abenduaren 27an emandako 10/2000 Legeak egindako aldarazpenak kontuan harturik, agindu honen helburua hau da: norbere edo inoren konturako lanetik lortutako diru-sarreraren ehuneko batzuk kanpo uztea baliabideak zenbatzerakoan, agindu honetan ezartzen den moduan eta baldintzekin.

2.— Norbere edo besteren konturako lanetik lortutako diru-sarrera guztiak geratuko dira zenbaketatik at, diru-sarrerok eskatzailearenak edo titularrarenak izan, bizikidetzako unitate ekonomiko independenteko gainerako kideenak eta, kasua bada, apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuaren 11.3 artikuluan jasotakoaren arabera laguntzak jaso ditzaketen pertsonenak (gizarte larrialdietarako laguntzak arautu zituen dekretu horrek).

2. artikulua.— Kontuan hartuko ez diren diru-sarreraren ehunekoa.

1.— Norbere edo inoren konturako lanetik lortutako diru-sarreraren ehunekoa, aintzat hartuko ez dena, formula honen arabera zehaztuko da:

Kanpo utzi beharreko ehunekoa = $\{ (\text{oinarrizko deskontua} + \text{deskontu osagarria}) / \text{diru-sarrera propioak} \} \times 100$.

Hara:

a) Oinarrizko deskontua: Oinarrizko Errentaren (OE) —kide kopuruaren arabera, bizikidetzako unitate (bu) bakoitzari dagokion baliokidetzako faktoreaz biderkatuta—oinarrizko zenbatekoaren eta bizikidetzako unitate (bu) bakoitzari dagokion Oinarrizko Errentaren (buOE) zenbatekoaren artean dagoen aldea.

Oinarrizko Errentaren (OE) oinarrizko zenbateko kide bakar bateko bizikidetzako unitateari (bu) dagokiona da; eta Oinarrizko Errenta (buOE), berriz, kasu kasuko bizikidetzako unitatearen (bu) tamainaren arabera dagokiona.

Baliokidetzako faktorea (bu) zehaztuko da eskatzaile edo onuradunaren bizikidetzako unitatearen (bu) kide kopuruaren arabera, ondoko taulan agertutakoa kontuan izanik:

efectos de su mejor comprensión por parte de las instituciones y profesionales encargados de su gestión.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

1.— A los efectos previstos en el artículo 12.3 del Decreto 198/1999, de 20 de abril, por el que se regula el Ingreso Mínimo de Inserción y en el artículo 17 del Decreto 199/1999, de 20 de abril, por el que se regulan las Ayudas de Emergencia Social, y de conformidad con las modificaciones introducidas por la Ley 10/2000, de 27 de diciembre, de Carta de Derechos Sociales, es objeto de la presente Orden la exclusión en el cómputo de recursos de determinados porcentajes de ingresos procedentes del trabajo por cuenta propia o ajena, en la forma y en las condiciones que se establecen en la presente Orden.

2.— La exclusión en el cómputo afectará a todos los ingresos procedentes del trabajo por cuenta propia o ajena del solicitante o titular, de los demás miembros de su unidad de convivencia así como, en su caso, de las demás personas que, de acuerdo con lo previsto en el artículo 11.3 del Decreto 199/1999, de 20 de abril, por el que se regulan las Ayudas de Emergencia Social, pudieran beneficiarse de las prestaciones.

Artículo 2.— Porcentaje de ingresos excluidos.

El porcentaje de ingresos procedentes del trabajo por cuenta propia o ajena que quedará excluido se determinará de conformidad con la fórmula siguiente:

Porcentaje a excluir = $\{ (\text{Descuento base} + \text{Descuento complementario}) / \text{Ingresos propios} \} \times 100$

Siendo:

a) Descuento base, la diferencia existente entre la cuantía básica de la Renta Básica (RB) multiplicada por un factor de equivalencia que corresponde a cada unidad de convivencia (uc) en función del número de sus miembros y la cuantía de la Renta Básica (R_{buc}) que corresponde a cada unidad de convivencia (uc).

La cuantía básica de la Renta Básica (RB) es la que corresponde a una unidad de convivencia (uc) de un solo miembro y la Renta Básica (R_{buc}) la que corresponde en función del tamaño de la unidad de convivencia (uc) que corresponda en cada caso.

El factor de equivalencia (uc) se establece en función del número de miembros de la unidad de convivencia (uc) a la que pertenezca el solicitante o beneficiario, de acuerdo a lo señalado en la tabla que se indica a continuación:

bu tamaina	Baliokidetasun faktorea
Kide 1	1,5
2 kide	1,8
3 kide	1,9
4 kide	2,0
5 kide	2,1
gainerako kide bakoitzeko	gehi 0,1

Tamaño uc	Factor de equivalencia
1 miembro	1,5
2 miembros	1,8
3 miembros	1,9
4 miembros	2,0
5 miembros	2,1
Por cada uno de los restantes miembros	0,1 adicional

Oinarrizko deskontua = [(pertsone bakarrekoko bizikidetzaren unitateari dagokion Oinarrizko Errenta * Baliokidetzaren faktorea bu) - Oinarrizko Errenta bu]

b) Deskontu osagarria: bizikidetzaren unitatearen norbere edo besteren konturako lanetik datozen hileko diru-sarrera propioen eta, baliabiderik ez izatekotan, bizikidetzaren unitate horri legokiokkeen Oinarrizko Errentaren (OE) oinarrizko zenbatekoaren artean dagoen aldearen %10.

Deskontu osagarria = [%10 (laneko diru-sarrera propioak - Oinarrizko Errenta bu)].

c) Diru-sarrera propioak: bizikidetzaren unitate ekonomiko independentea osatzen duten pertsona guztien norbere edo inoren konturako lanetik lortzen diren hileko guztirako diru-sarrerak.

Aurreko letretan aipatzen diren kontzeptuak zehazteko, bizikidetzaren unitate ekonomiko independente-kideez gain, kontuan hartuko dira, kasua bada, gizarte larrialdiei buruzko apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuaren 11.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera laguntzak jaso ditzaketen pertsonak.

3. artikulua.- Dokumentazioa.

Araudi honetan aurreikusitakoaren arabera irabaziak kontuan ez hartzeko aukeraz baliatzeko, interesatuak agiri hauek eman beharko dizkio Administrazioari:

a) Norbere konturako lanetik lortutako irabazien kopia, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpenaren kopia, edo, bestela, azken hiru hilabeteetan izandako hileko batzueko besteko diru-sarrera garbiei buruzko zinpeko aitortpena.

Descuento base = [(Renta Básica base * Factor de equivalencia uc) - Renta Básica uc]

b) Descuento complementario, el 10% de la diferencia existente entre los ingresos propios mensuales totales procedentes del trabajo por cuenta propia o ajena de la unidad de convivencia de referencia y la cuantía base de la Renta Básica (RB) que correspondería a dicha unidad de convivencia en el supuesto de ausencia total de recursos.

Descuento complementario = [10% (Ingresos propios de trabajo-Renta Básica uc)]

c) Ingresos propios, los ingresos mensuales totales procedentes del trabajo por cuenta propia o ajena del conjunto de personas que compongan la unidad de convivencia de referencia.

A los efectos de la determinación de los conceptos a que se refieren las letras anteriores, además de los miembros de la unidad de convivencia, se tendrá en cuenta, en su caso, a las demás personas que, de acuerdo con lo previsto en el artículo 11.3 del Decreto 199/1999, de 20 de abril, por el que se regulan las Ayudas de Emergencia Social, pudieran beneficiarse de las prestaciones a que se refiere dicho artículo.

Artículo 3.- Documentación.

Para beneficiarse de la exclusión de rendimientos prevista en el presente reglamento el interesado facilitará a la Administración:

a) En el caso de rendimientos por cuenta propia, copia de la última declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o, en su defecto, declaración jurada de ingresos mensuales medios netos a lo largo de los tres últimos meses.

b) Inoren konturako lanetik lortutako irabazien kausan, erreferentziako azken hileko nominaren kopia, edo, bestela, lanen hileko irabaziei buruzko zinpeko aitormena, interesatuak eta kontratatatu duen enpresariak bermatua.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetu egin da Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren 2000ko otsailaren 3ko Agindua, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzeko dena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Garapena.

Ahalmena ematen zaio Gizarte Ongizate zuzendaria-ri agindu hau aplikatzeko behar diren jarraibideak emateko.

Bigarrena.– Indarrean sartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarri da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko otsailaren 14a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Zk-963

EBAZPENA, 2000ko abenduaren 4koa, Giza Baliabideak Antolatze zuzendariarena, Justizia Administraziooko ofizialen kidegoan sartzeko hautaprobetarako deialdia egiten duen 2000ko azaroaren 14ko Agindua argitaratzen duena.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 455. artikuluan eta ofizial, laguntzaile eta agenteen kidegoetarako Araudi Organikoaren 20.2 artikuluan xedatzenenez, hautatzeko prozesuetarako deialdiak Justizia Ministerioak onartuko ditu, autonomia erkidegoek txostena eman ondoren, baina Justizia Administrazioak jardun ahal izateko, langileen eskualdaketa jaso duten er-

b) En el caso de rendimientos por cuenta ajena, copia de la última nómina mensual de referencia o, en su defecto, declaración jurada de rendimientos mensuales de trabajo, avalada por el interesado y por el empresario contratante.

DISPOSICION DEROGATORIA ÚNICA

Queda derogada la Orden de 3 de febrero de 2000, del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, por la que se establecen los estímulos al empleo de los titulares del Ingreso Mínimo de Inserción y de los beneficiarios de las Ayudas de Emergencia Social.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Desarrollo.

Se faculta al Director de Bienestar Social para dictar las directrices e instrucciones necesarias para la aplicación de la presente Orden.

Segunda.– Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de febrero de 2001.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Nº-963

RESOLUCIÓN de 4 de diciembre de 2000, del Director de Ordenación de Recursos Humanos, por la que se dispone la publicación de la Orden de 14 de noviembre de 2000, por la que se convocan pruebas selectivas para ingreso en el Cuerpo de Oficiales de la Administración de Justicia.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 455 de la Ley Orgánica del Poder Judicial y en el artículo 20.2 del Reglamento Orgánico de los Cuerpos de Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia, las convocatorias de los procesos selectivos se aprobarán por el Ministerio de Justicia, previo informe de las Comunidades Autónomas, y serán territorializadas en